

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4066

AGINDUA, 2012ko uztailaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkari-organoren gorenaren kide batzuk, egokitzen direnak, aukeratzeko hauteskunde-prozesua zabaltzen duena.

Azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuak, urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretuak aldatutakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkari-organoren gorenaren hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen du.

Dekretu horiek ezartzen dutenez, ikastetxeetako ordezkari-organoren erdi biak urte bitik behin berrituko dira, txandaka.

Ordezkaritza-organoren gorenaren kideen azken hautespena 2010-2011 ikasturteko lehen hiruhilekoan egin zen, eta, beraz, 2012-2013 ikasturteko lehen hiruhilekoan egin behar da berrikuntza.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari dagokio dagokion hauteskunde-prozesua burutzeko epea zabalik dagoela adieraztea

Hori dela-eta, eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honakoa

XEDATZEN DUT:

1.– 1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkari-organoren gorenaren kide batzuk, egokitzen direnak, aukeratzeko hauteskunde-epea zabalik dagoela adieraztea.

2.– Hauteskunde-prozesua azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkari-organoren gorenaren hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen duenak xedatutako moduan bideratuko da. Urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori.

2. artikulua.– Hauteskundeak 2012ko urriaren 15 eta 18a bitartean egingo dira ikastetxe guztietan, eta ikastetxeetako ordezkari-organoren gorenaren berriak 2012ko azaroaren 9a baino lehen egon beharko du osatuta.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epearen barruan. Kasu bietan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da kontatzen epea.

2012ko irailaren 10a, astelehena

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 16a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.